

2014ko uztailaren 9a
ANTSOAIN
Udal ordenantza, Antsoaingo udal mugapeko aisialdiko biltoki iraunkor zein aldi baterakoak arautzen dituen. Behin betiko onespena

Antsoaingo Udalak, 2014ko apirilaren 30ean egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Antsoaingo udal mugapeko aisialdiko biltoki iraunkor zein aldi baterakoak arautzen dituen udal ordenantza. Iragarkia 2014ko 90. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara, maiatzaren 12an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluari jarraikiz, eta jendaurrean egoteko epea inork erreklamazio, kexa edo oharrik egin gabe iraganik, ordenantza hori behin betiko onetsi da eta, beraz, osorik ematen da argitara.

Antsoainen, 2014ko ekainaren 23an.–Alkatea, Antonio Gila Gila.

UDAL ORDENANTZA, ANTSOINGO UDAL MUGAPEKO AISIALDIKO BILTOKI IRAUNKOR ZEIN ALDI BATERAKOAK ARAUTZEN DITUENA
ATARIKOA

Gure herrian herritarrek oro har eta gazteek bereziki aisialdia betetzeko duten moduetako bat etxabeak aisialdirako leku gisa erabiltzea da. Lehen herriko jaiak bezalako data zehatzetan erabiltzen baziren ere, gaur egun ekintza iraunkorra bihurtu dira eta herritarren artean zabal onartuta daude.

Aisiarako biltokiak ez dira sartzan ikuskizun publikoen eta josteta jardueren sailean (ostatuak, kultura edo gastronomiako elkarteak, kafetegiak, jatetxeak, antzokiak, zinemak, festa aretoak, diskotekak, josteta jokoaren aretoak, ziberzentroak, kirol instalazioak eta antzeko beste batzuk), horiek jarduera sailkatu gisa tramitatu behar baitira, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onesten duen abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuaren 4 D. F) eranskinean ezarritakoaren arabera.

Halako lokalei buruzko araudirik ez dagoenez, lokal batzuek egiturazko baldintza desegokiak dituzte, eta horrek arrisku larria sortzen die segurtasunaren aldetik lokalaren erabiltzaileei eta auzoko bizilagunei.

Antsoaingo Udalak argi du gertakari hau bi alderditatik begiratuta arautu behar dela: alde batetik, lokal horiek sortzen dituzten eragozpenen eta balizko arriskuen ondorioz herritarrek dituzten kezkei erantzutea, eta, bestetik, gazteriaren eta, oro har, herritarren elementu dinamizatzaile gisa aintzat hartzea. Udalaren ustez, erabat bateragarriak dira bi alderdi horiek.

Zioen azalpen honetan adierazitakoaren ildotik, abenduaren 10eko 26/2001 Foru Legeak, Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak arautzen dituen martxoaren 14ko 2/1989 Foru Legea aldatzen baitu, zioen azalpenean jasotzen du izaera sozialeko josteta jardueretan erabiltzen diren sarrera murriztuko lokal eta instalazioek sortzen duten arazoari aurre egin

beharra, batez ere besteen segurtasuna, osasungarritasuna eta eragozpenak jokoan daudenean.

Alde horretatik, lege aldatuaren 1.2 artikulua testu berriak dioenez, josteta edo aisialdi jarduerak egiteko lokal horiek behar diren baldintza teknikoak bete behar dituzte hirugarrenei enbarazu ez egiteko eta pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko, bereziki egituren sendotasunari eta instalazioaren funtzionamenduari dagokienez, suteen aurkako prebentzio eta babes neurriei dagokienez eta, orobat, osasungarritasun eta higiene baldintzei dagokienez; horretarako, behar den udal lizentzia eduki beharko dute.

Lurzoruari buruzko maiatzaren 28ko 8/2007 Legeak, hiritarraren estatutuaren barrenean (4 eta 5. artikulua), ondasun eta eskubideen zerrenda jasotzen du. Eskubideen artean, etxean zaratarik edo beste emisio kutsagarririk gabe bizitzekoa dago. Eta betebeharren artean, besteak gogaitu edo haien ondasunak hondatzeko arriskua duten egintza edo jarduerarik ez egitea.

Ordenantza honen helburua da aisiako toki horiek bermatzea, erabiltzaileendako zein auzoendako eragozpen eta arriskuak saihestuz, eta interes pribatuak interes publikoarekin bateratzea.

Ordenantzaren edukia da behar diren neurri zuzentzaileak zehaztu eta eskatzea; orobat, eskaera prozeduraren inguruko xedapenak eta erantsi beharreko dokumentazioa ezartzen dira, baita haiek huts eginez gero hartuko diren neurriak ere.

ATARIKO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen helburua da Antsoaingo Udalaren esku-hartze administratiboa arautzea, aurea hartu, murriztu eta kontrolatzeko bai etxabeak eta lokalak aisialdiko eta biltzeko toki bezala erabiltzeak dakartzan kalteak bai haietatik gauzendako eta pertsonendako sortutako kalte-galerak.

Bereziki, ordenantza honen xedea honako hau da:

- a) Batez ere herriko gazteek aisia alternatiborako eskatzen dituzten lekuek segurtasun eta higiene baldintza gutxieneakoak betetzen dituztela bermatzea, erabiltzaileei beraiei eta herritarrei oro har eragozpenik eta arriskurik ekar ez diezaieten.
- b) Biltokien erabilera bizilagunen eskubideekin bateragarri egitea.
- c) Zerikusia duten aldean araubidea ezartzea (jabeak, maizterrak eta, adingabeen kasuan, gurasoak edo tutoreak), denek eskubideen eta betebeharren kontzientzia izan dezaten.
- d) Egun dauden lokalak oraingo araudian sartzen laguntzea.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Ordenantza hau aplikatuko zaie Antsoaingo udal mugapean gaur egun dauden eta geroan irekitzen diren aisialdiko biltoki iraunkor zein aldi baterako guztiei.

3. artikulua. Definizioak.

Kultura, aisia, josteta edo antzeko asmoekin jendea biltzeko erabiltzen diren tokiei esaten zaie "aisialdirako biltoki", irabazi asmorik ez badute eta, bertan, jende guztiarentzat irekita izan gabe eremu pribatu hutseko jarduerak egiten badira. Eraikinen beheko solairuan egoten dira, hirigintzako araudiaren arabera haiek paratzea zilegi bada (eta hirigintzako baimen hori

espresuki ezartzen ez bada, gisako erabilerakoekin parekatuko da), eta ez dira ostatua, sukaldea, jatetxea edo gisako zerbitzuak sartzen. Bi lokal mota bereiz daitezke:

3.1. Biltoki iraunkorrak: urte osoko jarduera duten lokalak.

Ordenantza honen 1. eranskinean eskatzen diren gutxienerako baldintzak bete beharko dituzte.

3.2. Aldi baterako biltokiak: herriko festetan erabili nahi diren lokalak. Ordenantza honetan xedatutako baimena bakarrik izanen da lokala herriko festetan eta haien aurreko egunean eta ondokoan erabiltzeko.

Ordenantza honen 2. eranskinean eskatzen diren gutxienerako baldintzak bete beharko dituzte.

TITULUA BAKARRA

LEHENBIZIKO KAPITULUA

PROZEDURA

4. artikulua. Ordezkaritza.

Biltokietako kideek ez dutenez izaera juridikorik izanen, ordezkari bat izendatu beharko dute, irizpide hauei jarraikiz.

–Kideak adingabeak eta adin nagusikoak badira, taldeko adin nagusiko guztien artetik hautatutako pertsona bat izendatu beharko dute.

–Kide guztiak adingabeak badira, bi ordezkari izendatu beharko dituzte; bata taldeko kide baten legezko tutorea izanen da eta bestea taldekoen artean hautatua. Ordezkari adingabeak adin nagusitasuna behar ez duten ordezkariak izan behar dituzte.

Ondorio guztietarako, Antsoingo Udalak egin behar dituen jarduketari buruz ordezkariarekin hitz egingen da, eta haiek taldeko gainerako kideei jarduketa horien berri eman beharko diete. Ordezkariak edo ordezkariak jakinarazpenak jasotzeko emandako helbidean jakinaraziko dira Udalaren egintzak.

“Aisialdirako biltokiak” osatzen dituzten kideek ordezkarien bitartez egin beharko dituzte Udaleko tramite guztiak.

Jakinarazpenetarako ordezkaria edo helbidea aldatzen bada, horren berri eman beharko zaio Udalari; izan ere, interesdunak aipatu helbidean ezin jakinarazi bada, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoari jarraituko zaio, iragarkien bidez jakinarazteari dagokionez.

5. artikulua. Lizentzia tramitatzea.

Lokal bat “biltoki” gisa erabili nahi duen pertsona edo talde orok alde aurretik behar den baimena eskatu beharko dio Udalari; baimen horren izena “Aisialdirako biltokia erabiltzeko lizentzia” izanen da, eta, horretarako, Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira eskaera eta behar diren agiriak. Antsoingo Udalak egingen du tramitazioa.

Antsoingo festetan aldi baterako erabiltzeko lizentzia lortu nahi dutenek gutxienez ere hilabete lehenago aurkeztu beharko dute eskaera. Data horren ondotik aurkezten diren eskaerak ez dira onartuko.

Betiere, debeku da arras delako jardueran aritzea behar den lizentzia eskuratu gabe.

Oro har, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako xedapenei jarraituz arautuko da tramitazioa eta, bereziki, ordenantza honetako determinazioen arabera.

5.1. Eskatutako dokumentazio orokorra.

1.–Lokalaren helbidea.

2.–Taldeko kide guztiek sinatutako agiria, taldearen ordezkaria izanen denaren izen-deiturak adierazita, ordenantza honen 4. artikuluan ezarritako moduan (3. edo 4. eranskina).

3.–Ordezkeri izateko hautatuaren edo hautatuen datu pertsonalak: izen-deiturak, IFZ eta haren fotokopia, postako helbidea, NANaren fotokopia, posta elektronikoen helbidea, telefono finkoa eta sakelakoa.

4.–Aisialdirako biltokiko kideen izen-deiturak, NAN zenbakia eta haren fotokopia, postako helbidea eta telefonoa (5. eranskina).

5.–Adingabeen kasuan, aisialdirako lokaleko kide adingabeen amaren, aitaren edo tutorearen izen-deiturak, IFZ, helbidea, telefonoa eta sinadura, eta adingabe bakoitzari buruz emandako adostasuna.

6.–Lokalaren jabearen izen-deiturak, NANA, helbidea eta telefonoa (5. eranskina).

7.–Eskatzaileek lokalaren titulartasuna edo hura erabiltzeko legezketasuna frogatu beharko dute. Horretarako, errentamenduaren kontratuaren edo erabilera lagapenaren kopia edo jabetza eskritura aurkeztuko dute.

8.–Lokala babesteko suteen aurkako eta erantzukizun zibileko aseguru-polizaren egiaztapena; gutxienez ere 250.000 euroko estaldura izan beharko du.

9.–Lokalak sukaldea badu, aisialdirako biltokiaren ordezkariaren zinpeko aitortpena aurkeztuko da, non adieraziko baitu sukaldea zigitatuta dagoela eta ez dela inoiz erabiliko.

Udaleko zerbitzu teknikoek, higiezinaren kontserbazio egoera ikusirik, segurtasun akatsak atzematen badituzte lokalean (eta 80 urtetik gorako erakinetan beti), jabeari eskatuko diote (Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 87. artikuluekin bat), teknikari eskudun batek sinatutako ziurtagiria aurkez dezala, horren bidez bermatzeko lokalaren eta, hala behar bada, eraikinaren segurtasuna eta egituraren sendotasuna.

Lokala 1. edo 2. eranskinean (lokal iraunkorra edo aldi baterakoa den) ezarritako baldintzetara egokitzeko obrak egitea beharrezkoa bada, ezin izanen da "Aisialdirako biltokia" erabiltzeko lizentzia eman, aldez aurretik obretarako udal lizentzia eman ez bada, ondoren obrak egiteko eta, hala, erabilera horretarako egokitzapena ziurtatzeko, 6. eranskineko eredu erabiliz.

5.2. Aisialdirako biltoki iraunkorrak:

Ordenantza honen I. eranskinean eskatzen diren gutxienerako baldintzak betetzen direla frogatzea. Horretarako, lokalaren jabeak honako agiri hauek eman beharko dizkie lizentzia eskatzen dutenei:

1.–Teknikari eskudun batek sinatutako ziurtagiria (6. edo 7. eranskina, obrak egin diren ala ez kontuan harturik); ziurtagiri horretan, garatu beharreko jarduerak eta lokaleko instalazio eta ekipamenduak azalduko dira, eta biltoki iraunkor gisa erabiltzeko egokia dela ziurtatuko da, suteen eta zaraten aurkako neurri zuzentzaileak betetzen direla ziurtatuz.

2.–Hotsaren neurketa, zaratak edo bibrazioak sorrarazten dituzten jarduerak bete beharreko baldintza teknikoak ezartzen dituen ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretua betetzen dela frogatuko duena.

3.–Lokalaren plano eskalan, teknikari eskudun batek sinatua, non agertuko baitira azalera, banaketa, garaiera libreak eta suteei aurrea hartzeko neurriak, baita lokalaren beste instalazio batzuk ere (aireztapena, iturgintza, elektrizitatea etab.).

5.3. Aisialdirako aldi baterako biltokiak:

1.–Lokaleko jabearen zinpeko aitortpena, jarduerarako erabiltzen den higiezinak ordenantza honen 2. eranskinean eskatzen diren gutxieneko baldintzak betetzen dituela adierazteko.

2.–Ziurtagiri teknikoak, suteen aurkako neurriak betetzen direla bermatuko duena (Eraikuntzako Kode Teknikoa, Segurtasunaren eta Suteen Oinarrizko Dokumentua, CTF-DB-SI).

6. artikulua. Ebazpena.

Eskaera eta agiri teknikoak jaso ondoren, Udaleko Zerbitzu Teknikoek eskatu diren baldintzak betetzen dituzten egiaztatu eta horren gaineko txostena eginen dute. Aipatu txostenean zehatz azalduko da 1. edo 2. eranskineko baldintzak, kasuaren arabera, betetzen direla, eta jasoko da lokala antzeko beste batzuetatik gertu dagoen; proposatzen ahalko da, Udaltzaingoak txostena egin ondoren, eremuren bat edo kale zatiren bat “saturatutatzat” jo dadila. Udalak ebatziko du “aisialdirako biltokia erabiltzeko lizentzia” ematea bidezkoa den ala ez.

“Aisialdirako biltokia” erabiltzeko lizentzia ematen duen Udalaren administrazio ebazpenak uneoro egon beharko du lokalean, eta Antsoaingo Udaleko teknikarien eta Udaltzaingoaren eskura.

7. artikulua. Biltokia erabiltzeko lizentziaren indarraldia eta lizentzia eskualdatzea.

Biltoki iraunkorrak erabiltzeko lizentziak indarra izanen du jarduera hori egiten den bitartean, ordenantza honetan xedatzen dena kontuan izanik.

Lizentzia eskualdatzen ahalko da, eta eskualdatze hori Udalari jakinarazi beharko diote bai titular zaharrek bai berriek, hamabost eguneko epean, 5.1 artikuluan eskatutako agiriak aurkeztuz Udaleko Erregistro Orokorrean.

8. artikulua. “Aisialdirako biltokia” erabiltzeko lizentzia iraungitzea.

Jarduera bertan behera utzi edo gelditzen bada, erabiltzeko lizentzia eman eta bi urte baino gehiago, lizentzia iraungitzat joko da eta indarrrik gabe geldituko da.

Erabiltzeko lizentziaren iraungipenak Udalaren adierazpen espresa beharko du administrazio espedientearen aurretik, zeinean entzunaldia eman beharko baitzaie bai “Aisialdirako biltokiaren” ordezkariari bai lokalaren jabeari.

BIGARREN KAPITULUA **ADMINISTRAZIOAREN ESKU-HARTZEA**

9. artikulua. Erabileren mugak.

Debeku da arras:

a) Lastaira, kartoi eta plastikoak (edalontziak, platerak eta ohiko beste tresna txiki batzuk izan ezik) erabili edo pilotzea, edo sutea sortu edo zabaltzeko arriskua ekar dezakeen beste edozein material.

b) Lokalaren barnean sua egitea eta gai sukoiak pilotzea.

c) Sukaldea izatea, eta lurruna, kea edo usaina sortzen duen elementuak.

d) Nafarroako Gobernuaren ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretuak onartutako asots maila gainditzea.

e) Ateak eta leihoak irekita edukitzea, baldin eta soinu aparaturen bat piztuta badago, zarata dela-eta eragozpenik ez sortzeko.

- f) Eremu publikoa altzariekin edo lokaleko beste edozein elementurekin okupatzea.
- g) Lokala ongi zainduta eta garbi edukitzeko beharrezkoak diren neurriak ez hartzea.
- h) Eremu publikoa edozein hondakin edo hondarrez eta, oro har, edozein zaborrez zikintzea, Eremu publikoari buruzko udal ordenantzan xedatua bete beharrez.
- i) Lokalean ezin izanen da merkataritzako inolako jarduerarik edo salmentarik egin. Halaber, espresuki debekatuta egonen da ikuskizunak eta josteta jarduerak egitea herritarrentzat oro har, hala biltoki iraunkorretan nola aldi baterakoetan.
- j) Biltokiak eskolako ordutegian (jolas-orduak barne) erabiltzea, eskolako adineko kideak dituztenean.
- k) Adingabeek edari alkoholodunak eta tabakoa kontsumitzea, Adingabeei Edari Alkoholodunen Kontsumoa Galarazi eta Mugatzeari buruzko martxoren 16ko 10/1991 Foru Legearen eta otsailaren 14ko 6/2003 Foru Legearen arabera, edo horiei dagozkien arau indardunen arabera.
- l) Droga toxikoak, gai sorgogorriak edo psicotropikoak edukitzea, haiekiko tolerantzia izatea, legez kanpo kontsumitzea edo haiekin trafikitzea, Herritarren Segurtasuna babesten duen otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 23.i) artikuluekin bat, edo horiei dagozkien arau indardunen arabera.
- m) Lokalean animaliak edukitzea, haiekin inor ez dagoela.
- n) Baimendutako gehieneko aforoa gainditzea, arau hauen arabera: Eraikuntzako Kode Teknikoa, Segurtasunaren eta Suteen Oinarrizko Dokumentua, 3. zatia (CTE-DB-SI3).

10. artikulua. Ikuskatzeak.

Interesdunek erraztu egin beharko diete Antsoaingo Udaleko teknikari eskudunei lokalaren egoera ikuskatu eta egiaztatzeko lana, "Aisialdirako biltokia erabiltzeko lizentzia" eskuratzeko edo mantentzeko.

Egiaztatze lanak egiteko, kontrol kasuetan edo kexak aztertzerakoan, Udaleko teknikariak gaituta egonen dira eta, edonola ere, Antsoaingo Udaltzaingoa.

Ordenantza honetan araututako jardueren titularrek beharrezkoa den laguntza emanen diete ikuskatzaileei, beren eginkizunak betetzen ari direnean.

Salbuespenez, auzokoei behin eta berriz eragozpenak egiten zaizkiela egiaztatzen bada edo pertsonen segurtasuna arriskuan badago, sorburua lokalaren barrenean nahiz kanpoan egon (azken kasu honetan, jakina, arazoa lokalaren jarduerari lotuta dagoela frogaturik), udal agintaritzako agenteek, kautelazko neurri gisa, lokala itxi ahalko dute, gertaerak egiaztatuta eta alde zuzeneko errekerimendurik gabe. Neurria, behin-behinekoa denez, organo eskudunak berretsi edo deuseztatu beharko du, zehapen prozedura hasi ondoren.

HIRUGARREN KAPITULUA

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

11. artikulua. Arau-hausteak.

Ordenantza honetan xedatutakoa betetzen ez duten egintzak arau-haustetzat joko dira.

11.1. Arau-hauste oso larriak:

- a) "Aisialdirako biltokia erabiltzeko lizentzia" eskuratu gabe aritzea jardueran.
- b) Lokalaren jabeak sute aseguruaren poliza edo lokaleko jardueraren ondoriozko erantzukizun zibileko poliza ez izatea.

- c) Lokalaren jabeak gazteen eskutan ez uztea, errentamendu kontratua sinatu aitzin, 5. artikuluan urte osoko lokaletarako jasotzen den ziurtagiri teknikoak, teknikari eskudunak sinatua eta lanbide elkargoak ikus-onetsia.
- d) Erabileraren lizentzia eskuratzeko datu faltsuak alegatzea.
- e) Ordenantza honetan edo kasuari aplikatzen zaion legerian ezarritako arauzko ikuskatze edo kontrol lanak oztopatzea edo sarrera ukatzea.
- f) "Aisialdirako biltokiko" jardueran itxialdiak iraun bitartean aritzea.
- g) "Aisialdirako biltokiaren" jardueran ezarritako epetik kanpo aritzea.
- h) "Aisialdirako biltokiaren" jardueran ezarritako ordutegitik kanpo aritzea.
- i) Aisialdirako biltokia erabiltzeko lizentzia emanik, 1. eranskinean eskatzen diren baldintzetakoren bat ez betetzea.
- j) Lokalaren jabeak hura behar den egoeran ez izatea segurtasun, egituraren sendotasun eta bizigarritasun baldintzak eta baldintza teknikoak bermatzeari dagokionez.
- k) Hots maila baimendua gainditzea, 135/1989 Foru Dekretuak oso larritzat jotzen duenean.
- l) Jarduera horiek egiten diren lokaletan adingabeek edari alkoholodunak izatea, kontsumitzea edo haiei lortzea edo eskaintzea.
- m) Droga toxikoak, gai sorgogarriak edo psicotropikoak eduki edo kontsumitzea.
- n) Urtebetean bi arau-hauste larri edo hiru arin egitea, lehen arau-haustetik aitzina.

11.2. Arau-hauste larriak.

- a) Aisialdirako biltokiko altzariekin edo edozein elementurekin eremu publikoa okupatzea, ibilgailuen edo oinezkoen joan-etorria trabatu edo oztopatzen bada.
- b) Merkataritzan edo salerosketan aritzea lokalean.
- c) Hots maila baimendua gainditzea, 135/1989 Foru Dekretuak larritzat jotzen duenean.
- d) Lizentzia ukatzea ekarriko luketen aldaketak egitea lokalean.
- e) Urtebetean bi arau-hauste arin egitea, lehen arau-haustetik aitzina.

11.3. Arau-hauste arinak.

- a) Lokalaren barrenean kartoiak, plastikoak edo beste edozein material pilatzea, haien ezaugarriak direla-eta sua piztu edo hura hedatzen lagun dezaketenean.
- b) Antsoingo Udalaren Eremu publikoari buruzko ordenantzan xedatutakoa ez betetzea.
- c) Hots maila baimendua gainditzea, 135/1989 Foru Dekretuak arintzat jotzen duenean.
- d) Ateak eta leihoak irekita izatea eta, halakoetan, eragozpenak sortzea zarata edo usainak kanporatzeagatik.
- e) Ordenantza honetan edo lege aplikagarrietan larritzat edo oso larritzat jotzen ez diren arau-haustek.

12. artikulua. Subjektu erantzuleak.

11. artikuluan arau-hauste gisa sailkaturik agertzen diren egintzak benetan egin dituzten pertsonak izanen dira arau-hausteen erantzuleak. Arau-haustea biltokiko kide guztiei egozten ahal bazaie, nortasun juridikorik gabeko batasuna diren aldetik, lokaleko ordezkari agertzen direnei jakinaraziko zaie espedienteak. Horrek ez du ukatzen zehapena, ekonomikoa bada, batasun horretako kide guztiei zuzentzea modu solidarioan.

"Aisialdirako biltokia" erabileraren lizentziarik gabe erabiltzen bada, lokalaren jabea izanen da erantzulea.

13. artikulua. Zehapenak.

13.1. Arau-hauste oso larriei zehapen hauetako bat edo biak ezarriko zaizkie:

–Lizentzia baliogabetzea, aisialdirako biltokia ixtea eta beste lizentzia bat eskuratzeko debekua 3 hilabetetik 3 urtera bitarte.

–1.501etik 3.000 eurora bitarteko isuna.

13.2. Arau-hauste larriei zehapen hauetako bat edo biak ezarriko zaizkie:

–Baimenaren etenaldia, lokala gehienez ere 90 egunetarako itxita.

–750,01etik 1.500 eurora bitarteko isuna.

13.3. Arau-hauste arinei zehapen hau ezarriko zaie:

–Baimenaren etenaldia, lokala gehienez ere 30 egunetarako itxita.

–750 euro bitarteko isuna.

13.4. Zehapen espedienteen tramitazio administratiboa Idazkaritza Nagusiari dagokio.

14. artikulua. Ordezko zehapenak.

Zehapenak komunitatearen aldeko zerbitzuekin ordezka daitezke, baldin eta Diru zehapenen ordez komunitatearen aldeko zerbitzuak egiteko aukera arautzen duen udal ordenantzan ageri diren baldintzak betetzen badira.

15. artikulua. Kautelazko neurriak.

Ordenantza honetan sailkatutako arau-hauste batengatik zehapen prozedura hasten denean, zehapena ezartzeko eskumena duen organoak kautelazko neurri hauetakoren bat edo batzuk har ditzake, besteak beste:

a) Lokala aldi baterako ixtea.

b) Tresnak edo ekipoak zigilatzea.

c) Zuzenketa, segurtasun edo kontrol neurriak, arriskua edo kaltea egiten ez jarraitzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Antsoaingo Udalari dagokio ordenantza honen puntu guztien interpretazioa egitea.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza honek indarra hartu ondotik ezartzen diren biltoki iraunkor edo aldi baterakoei aplikatuko zaizkie ordenantza honetako xedapenak. Orobat, lehendik dauden biltokiei aplikatuko zaizkie; izan ere, urtebeteko epea dute, ordenantza honek indarra hartzen duenetik aitzina, hari egokitzeko.

Bitarteko aldian, salaketa hartzen duten lokalak, neurketa akustikoa egitean hots maila gainditzen denean etxebizitza kaltetuenetan, aldi batez itxiko dira, harik eta ordenantza honetan eskatutakoari egokitu arte, aldeztu aurretik kontraesaneko espediente irekirik.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.–“Aisialdirako biltokia” erabiltzeko lizentzia eskuratzeak ordenantza honetan xedatua onartzea dakar.

Bigarrena.–Ordenantza honek aurreikusten ez duen hartan, Estatuko zein Nafarroako lege edo dekretuetan xedatuari jarraituko zaio.

Hirugarrena.–Ordenantza honek ez du ondorio juridikorik izanen harik eta testua oso-osorik Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeita hamar egun iragan arte, epe hori baitute Estatuko edo Foru Komunitateko Administrazioek toki entitateei errekerimendua egiteko, haien egintzak edo erabakiak deuseztatzeari begira.

1. ERANSKINA

AISIALDIRAKO BILTOKI IRAUNKORRETARAKO ESKATZEN DIREN GUTXIENEN BALDINTZAK

Hemen aipatzen diren baldintza guztiak egoera eta funtzionamendu egokian mantendu beharko dira lizentziaren indarraldi guztian.

Aisialdirako biltoki iraunkorren lizentzia eskuratzeko bete beharreko baldintzak:

- 1) Zaratak edo bibrazioak sorrarazten dituzten jarduerak bete beharreko baldintza teknikoak ezartzen dituen ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretuan ezarritakoa betetzea. Neurketa bidez egiaztatuko da.
 - 2) Eraikuntza Udalaren eta Udalez gaindiko araudi indardunaren arabera izatea.
 - 3) Beheko solairuan kokaturik egotea, eremu publikotik sarrera zuzenean duela.
 - 4) Gehienez baimendutako aforoa zehaztea, Segurtasunaren eta Suteen Oinarrizko Dokumentuaren arabera (CTE-DB-SI3).
 - 5) Edateko ur korrontearen zerbitzua.
 - 6) Instalazio elektrikoaren ziurtagiria.
 - 7) Komun-zuloa eta konketa dituen komun itxia.
 - 8) Aireberritze naturala edo behartua lokal guztietan, indarra duen araudiaren arabera.
 - 9) Eraikuntzaren Kode Teknikoa (CTE DB-SI) betetzea, suteei aurrea hartzeari eta erabileraren segurtasunari dagokienez.
 - 10) Lokalean sartzeko ateez euste sistema bat eduki beharko dute, atea hotsik gabe, leunki eta erabat itxi ahal izateko.
 - 11) Lokaletan sartzeko pertsianak badaude, horiek leunki eta hotsik gabe ireki eta ixteko modua izan beharko da. Hala ez bada, kendu egin beharko dira. Pertsianak ez dira opakuak izanen.
- CTE DB-SI arauan ezarritako huste baldintzak betetz, sarrerako ateetako pertsianak erabat irekita eduki beharko dira lokala erabiltzen denean.
- 12) Ezin da sukaldetik edo janariak prestatzeko aparatuek eduki. Lokalak sukaldea badu, zigilatu egingen da eta, gainera, “Aisialdirako biltokiaren” ordezkariak zinpeko aitortpena egin beharko du, hura ez dela erabiliko adieraziz.
 - 13) Lokalaren jabeak suteen eta erantzukizun zibilaren aseguru poliza izenpetu beharko du, 250.000 eurokoa.

2. ERANSKINA

ALDI BATERAKO BILTOKIETARAKO ESKATZEN DIREN GUTXIENENKO BALDINTZAK

Hemen aipatzen diren baldintza guztiak egoera eta funtzionamendu egokian mantendu beharko dira lizentziaren indarraldi guztian.

- a) Beheko solairuan kokaturik egotea, eremu publikotik sarrera zuzenean duela.
 - b) Edateko ur korrontearen zerbitzua.
 - c) Argindarra. Instalatzaileak behe tentsioko instalazioari buruz egindako ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko da.
 - d) Komun-zuloa eta konketa dituen komun itxia.
 - e) Ziurtagiri teknikoa, suteen aurkako neurriak betetzen direla bermatuko duena (Eraikuntzako Kode Teknikoa, Segurtasunaren eta Suteen Oinarrizko Dokumentua, CTF-DB-SI).
 - f) Udal agintaritzak eska dezake, egokia iruditzen bazaio, hots potentziaren mugatzailea jar dadila musikako ekipoa, ordenantza honetan ezarritako gehieneko hots maila bermatzeko.
 - g) Gehenez baimendutako aforoa zehaztea, Segurtasunaren eta Suteen Oinarrizko Dokumentuaren arabera, 3. zatia (CTE-DB-SI3).
 - h) Lokalean sartzeko ateeke euste sistema bat eduki beharko dute, atea hotsik gabe, leunki eta erabat itxi ahal izateko.
 - i) Lokaletan sartzeko pertsianak badaude, horiek leunki eta hotsik gabe ireki eta ixteko modua izan beharko da. Hala ez bada, kendu egin beharko dira.
- CTE DB-SI arauan ezarritako huste baldintzak betez, sarrerako ateetako pertsianak erabat irekita eduki beharko dira lokala erabiltzen denean.
- j) Ezin da sukaldetik edo janariak prestatzeko aparatuek eduki. Lokalak sukaldea badu, zigilatu egingen da eta, gainera, "Aisialdirako biltokiaren" ordezkariak zinpeko aitortpena egin beharko du, hura ez dela erabiliko adieraziz.
 - k) Lokalaren jabeak suteen eta erantzukizun zibilaren aseguru poliza izenpetu beharko du, 250.000 eurokoa.

3. ERANSKINA

ORDEZKARITZA FROGATZEN DUEN DOKUMENTUA

(Adin nagusiko kideak dituzten aisialdirako biltokietan).

Honako hau sinatzen dutenek "Aisialdirako biltokiko" adin nagusiko pertsona hau izendatu dute:

Izena:

Lehen deitura:

Bigarren deitura:

IFZ eta haren fotokopia.

Sexua: Adina:

Helbidea:

Telefono finkoa:

Sakelako telefonoa:

Helbide elektronikoa:

Bestelakoak:

Haren ordezkari gisa, Udalarekin egin beharreko jakinarazpen edo tramiteetarako.

Eta hala ager dadin, honako hau sinatzen dute* "Aisialdirako bitokiko" kide guztiek,

Antsoainen, 20...(e)ko (a)ren (e)an

(*) Sinadura bakoitzaren azpian, izen-deiturak eta NANA adierazi.

Datuen babesa: Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko, aditzera ematen zaizu inprimaki honetako datu pertsonalak Administrazio honek dituen eskumenak baliatzean baizik ez direla erabiliko eta Antsoaingo Udalaren datu basea osatzen duten fitxategiei batuko zaizkiela. Fitxategietan sartu, datuak zuzendu eta ezabatzeko eta horien aurka jotzeko eskubideak Burlatako Udalari zuzendurik erabiltzen ahalko dituzu, Erregistro Orokorrera jota (Udaletxeko plaza, 1, 31013, Antsoain).

4. ERANSKINA

ORDEZKARITZA FROGATZEN DUEN DOKUMENTUA

(Kide guztiak adingabeak dituzten aisialdirako biltokietan).

Honako hau sinatzen dutenek "Aisialdirako biltokiko" legezko tutore hau izendatu dute:

Izena:

Lehen deitura:

Bigarren deitura:

IFZ eta haren fotokopia.

Sexua:

Helbidea:

Telefono finkoa:

Sakelako telefonoa:

Helbide elektronikoa:

Bestelakoak:

Eta adingabeko pertsona hau:

Izena:

Lehen deitura:

Bigarren deitura:

IFZ eta haren fotokopia.

Sexua:

Helbidea:

Telefono finkoa:

Sakelako telefonoa:

Sinatua: Ama, aita, tutorea Sinatua: Lokaleko kidea
Eguna:

Datuen babesa: Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoan ezarritakoa betez, aditzera ematen zaizu inprimaki honetan ematen diren datu pertsonalak hautapen prozeduran Udalak dituen eskumenak erabiltzeko baizik ez direla erabiliko eta Antsoaingo Udalaren datu basea osatzen duten fitxategiei batuko zaizkiela. Fitxategietan sartu, datuak zuzendu eta ezabatzeko eta horien aurka jotzeko eskubideak udal bulegoetara zuzendurik erabiltzen ahalko dituzu.

6. ERANSKINA

LOKALA AISIALDIRAKO BILTOKI GISA ERABILTZEKO GAITASUN ZIURTAGIRIA

(Obrarik eta instalaziorik egin ez denean. Eredu hau erabiliko da, halaber, obra txikiak egin direnean lizentziarekin, eta proiekturik gabe).

Izena:

.....
(idatzi ziurtagiria egiten duen teknikariaren datu pertsonalak: izen-deiturak, helbidea, telefonoa, elkargokide zenbakia eta lanbide elkargoa).

ZIURTATZEN DUT:

Izena:, (biltokiko kideek izendatutako adin nagusiko ordezkariaren izena), Udalarekin tramitazioak egiteko legezko ordezkaria den aldetik, aisialdirako biltokia hemen instalatu nahi duela: (helbidea).

Eginen den jarduera:

.....
(egin nahi den jarduera zein den eta nola eginen den xehetasunez deskribatu; ezin izanen da inolaz ere elkarte gastronomikoen jarduerarik egin).

Lokalean egindako azken jarduera:

.....
Erantsitako dokumentazio grafikoan agertzen diren banaketa, aireztapena, instalazioak eta gainerako ezaugarriak ditu lokalak (gutxienez aurkeztu beharrekoak: oin plano eta sekzioarena, suteen aurka instalatu diren neurriak azalduz, eta fatxadaren argazkia).

Lokalaren azalera eraikiak: (garaieren arabera bereiziko dira, eta eremu bakoitzeko garaiera librea adieraziko da metrotan. Solairuartera izanez gero, espresuki adierazi beharko da Eraikuntzaren ordenantzaren 18. artikularekin bat datorren; hala ez bada, haren legezketasunaren justifikazioa (lizentziak) aurkeztuko da, edo 4 urte baino gehiago daramatzala dioena (katastroa edo Udalaren beste erregistro bat).

Lokalak honako hauek dauzka:

.....
(deskribatu lokalak dituen instalazioak eta ekipamenduak: aireztatzeak, komunak, suteen aurkako neurriak, zer isolamendu akustiko duen etab.).

Lokalean sartzeko ateeak euste sistema bat dute, atea hotsik gabe, leunki eta erabat itxi ahal izateko.

Lokalaren sarrerako pertsiana ez da opakua izanen, eta legez ezarritako soinu maila errespetatuko da pertsiana hori ireki eta ixterakoan.

Lokalak makineria eta elementu mekaniko hauek ditu, aipatzen den potentziarekin: (Instalaturako elementuen zerrenda jasoko da: erauzgailuak, aire girotuko instalazioak konpresore eta haizagailuak zehaztuta, makineria finkoa, hozkailuak etab., bakoitzaren potentzia mekanikoa eta guztirakoa zehaztuta; halakorik ez badago, espresuki adieraziko da).

MEKANIKOKI ERAGINDAKO MAKINA/ELEMENTUA	POTENTZIA MEKANIKOA
.....
POTENTZIA MEKANIKOA, GUZTIRA	kW

–135/1989 Foru Dekretua, ekainaren 8koa, zaratak edo bibrazioak sorrarazten dituzten jarduerak bete beharreko baldintza teknikoak ezartzen dituena, betetzea.

–Egindako proba, neurketa eta kontrolen frogagiriak erantsi dira, bai eta materialen, ekipamenduen, sistemen eta eraikuntza elementuen ezaugarrienak ere.

–Lokala eta bertako instalazioak azterturik, eman nahi zaion erabilerak hirigintzako araudia eta gainerako arau aplikagarriak betetzen ditu, eta beste batzuei eragozpenik ez sortzeko beharrezkoak diren lasaitasun, segurtasun eta osasungarritasun baldintzak betetzen ditu.

Horrenbestez, ziurtatzen dut lokala eta instalazioak egokiak direla gazteentzako biltoki gisa erabiltzeko, betiere laguneko edukierarekin, gehienez ere. Araudiak eskatutako probak, neurketak eta kontrolak egin dira.

Eraikuntzako elementuek eta erabilitako materialek betetzen dituzte suaren aurrean izan beharreko jokaera eta erreakzio baldintzak, araudi indardunak eskatzen dituenak (CTE DB SI -1 eta SI-6).

Aisialdirako biltokiaren erabilerari buruzko berariazko ordenantzan ezarritakoa betetzen da.

Instalazio elektrikoak behe tentsioko instalazio elektrikoaren ziurtagiria du, baimendutako instalatzaile elektriko batek sinatu eta zigilatua. Horren kopia aurkeztu da.

Antsoainen, 20...(e)ko aren (e)an. (teknikariaren sinadura).

Jakinaren gainean,

Izena:

NANa:

(legezko ordezkariaren sinadura, eta izena, bi deitura eta NANa).

7. ERANSKINA

LOKALA AISIALDIRAKO BILTOKI GISA ERABILTZEKO GAITASUNAREN ZIURTAGIRIA, OBRA AMAIERAKOA

(Lokala egokitze obrak eta instalazioak proiektu batean oinarriturik egin direnean eta proiektu horrek behar den lizentzia duenean).

Izena:

.....
(idatzi ziurtagiria egiten duen teknikariaren datu pertsonalak: izen-deiturak, helbidea, telefonoa, elkargokide zenbakia eta lanbide elkargoa).

ZIURTATZEN DUT:

Izena:, (biltokiko kideek izendatutako adin nagusiko ordezkariaren izena), Udalarekin tramitazioak egiteko legezko ordezkaria den aldetik, gauzatu dituela lokala egokitzeko obrak, Tokiko Gobernu Batzarrak egunean baimenduak, LICOBRAS /...../..... espedientea, aisialdirako biltokia instalatzeko, helbide honetan:

(Bidezkoa dena adierazi).

Obrak eta instalazioak gauzatu dira proiektuari, eranskinei eta aurkeztutako gainerako dokumentuei eta emandako obra lizentziako baldintzei jarraikiz.

Obrak gauzatzean aldaketa txikiak egin dira. Aldaketa horiek ez dira garrantzitsuak eta obra amaierako dokumentazioarekin legezta daitezke. Ondorio horietarako, aldaketak deskribatzen dira, garrantzitsuak ez direla justifikatzen da eta egindako aldaketa bakoitzean araudia bete dela frogatzen, hemen:

..... egunean emandako obra amaierako planoetan, ziurtagiri honi erantsietan, jaso dira aldaketak.

Aldaketek ez dute eraginik obra lizentzia lortzeko aurkeztutako planoetan; hori horrela, obra amaierako planotzat jotzen dira.

Araudiak eta lizentziak eskatutako probak, neurketak eta kontrolak egin dira, baita ziurtagiri honetan adierazitakoa egiaztatzeko beharrezkoak direnak ere.

Lokalean sartzeko ateez euste sistema bat dute, atea hotsik gabe, leunki eta erabat itxi ahal izateko.

Lokalean sartzeko pertsiara leunki eta hotsik gabe ireki eta itxi daiteke.

Suteen kontrako babes elementuek indarra duen araudia betetzen dute (CTE DB SI).

Eraikuntzako elementuek eta erabilitako materialek betetzen dituzte suaren aurrean izan beharreko jokaera eta erreakzio baldintzak, araudi indardunak eskatzen dituenak (CTE DB SI -3).

Aireko zaratarako isolamendu akustikoaren maila, lokalaren eta goiko solairu kaltetuenaren artean, dbA-koa, honela: (dagokiona markatu).

≥ 55 dbA, musikako ekipoa izanez gero eta 65 dbA-ko hots potentzia badu gehienez, eta hein batean gaueko ordutegian erabiltzen bada.

≥ 50 dbA, musikako ekiporik ez bada eta eguneko ordutegian erabiltzen bada.

Aisialdirako biltokiaren erabilerari buruzko berariazko ordenantzan ezarritakoa betetzen da.

Instalazio elektrikoak behe tentsioko instalazio elektrikoaren ziurtagiria du, baimendutako instalatzaile elektriko batek eguneratu, sinatu eta zigilatua. Horren kopia aurkeztu da.

Egindako proba, neurketa eta kontrolen frogagiriak eta materialen, ekipamenduen, sistemen eta eraikuntza elementuen ezaugarriei dagozkienak, baita emandako ziurtagiriak ere, lokalean egonen dira Administrazioaren eskura.

Egin diren obren kostua eurokoa da.

Egindako obren ondoren, lokalak hirigintzako araudia eta gainerako arau aplikagarriak betetzen ditu, eta beste batzuei eragozpenik ez sortzeko beharrezkoak diren lasaitasun, segurtasun eta osasungarritasun baldintzak betetzen ditu.

Horrenbestez, ziurtatzen dut lokala eta instalazioak egokiak direla aisialdirako biltoki gisa erabiltzeko, betiere laguneko edukierarekin, gehienez ere.

Antsoainen, 20...(e)ko aren (e)an. (teknikariaren sinadura).

Jakinaren gainean,

Izena:

NANa:

(legezko ordezkariaren sinadura, eta izena, bi deitura eta NANa).

8. ERANSKINA

ALDI BATERAKO BILTOKIAREN JABEAREN ZINPEKO AITORPENA

Izena:, NANa:, helbidea:, telefonoak:, zinpean deklaritzen dut:

Nire jabetzapeko lokalak (Antsoain, kalea:, zenbakia:), ordenantza honen 2. eranskinean ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen dituela aisialdirako aldi baterako biltoki gisa erabiltzeko.

Eta hala ager dadin, aitorpen hau sinatzen dut.

Suteen aurkako neurriak, 2. eranskinean zehaztuak, betetzen direla bermatzen duen ziurtagiri teknikoa erantsiko da.

Antsoainen, 20...(e)ko (a)ren (e)an

Sinatua: Izena:

Iragarkiaren kodea: L1409145